



LEHENDAKARIA EUSKAL KIROLARI OLINPIKO ETA PARALINPIKOEKIN ELKARTU DA

- **22 euskal kirolarik parte hartuko dute Rioko Joko Olinpiko eta Paralinpikoetan**
- **Beste 11 kirolarik aukerak dituzte oraindik**

Iñigo Urkullu lehendakaria, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburu Cristina Uriarte eta Kiroletako zuzendari Jon Redondo Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetan eta Paralinpikoetan lehiatuko diren euskal kirolariekkin bildu dira gaur goizean.

Abuztuaren 5etik 21era izango dira Joko Olinpikoak eta irailaren 7tik 18ra, berriz, Joko Paralinpikoak. Oraingoan, 22 euskal kirolarik parte hartuko dute ziur, eta beste 11k parte hartzeko aukerak dituzte oraindik. Atletismoan, triatloi egokituan eta banakako beste kirol batzuetan, kirol-egutegiko lehiaketarik garrantzitsuenean parte hartzeko gutxieneko markak edo puntuak lor daitezke oraindik. Bestalde, zenbait talde-kiroletan, laster jakinaraziko dituzte hautatutako jokalarien zerrendak federazioek, esaterako, eskubaloian, emakumezkoen belar-hockeyan eta gizonezkoen eta emakumezkoen zazpiko errugbian.

Kirolari hauek izan dira gaur goizeko harreran:

- Maialen Chourraut (piraguismoa - eslaloma)
- Carlos Tobalina (atletismoa - pisu-jaurtiketa)
- Trihas Gebre (atletismoa - 10.000 metro)
- Ignacio Martin (zazpiko errugbia)
- Pablo Feijoo (zazpiko errugbia)
- Igor Genua (zazpiko errugbia)
- Bárbara Pla (zazpiko errugbia)
- Tania Calvo (pistako txirrindularitza)
- Ane Santesteban (errepideko txirrindularitza)
- Sugo Uriarte (judoa)
- Asier García (gurpil-aulkiko saskibaloia)
- Amador Granados (pistako txirrindularitza egokitua)
- Rakel Mateo (triatloi egokitua)



Horiez gain, Ander Elosegik (piraguismoa - eslaloma), Iñigo Peñak (piraguismoa - pista), Pablo Carrerak (tiro olinpikoa), Ainhoa Muruak (triatloia), Markel Alberdik (igeriketa) eta emakumezkoen eskubaloi eta belar-hockey taldeek ere parte hartuko dute Jokoetan, baina ezin izan dira lehendakariarekin bildu, kanpoan baitaude hitzordu garrantzitsua prestatzen.

Topaketan, lehendakariak Olinpiar Jokoetan parte hartuko duten kirolariei babesa eta konfiantza adierazi die; Urkulluren esanetan, gizartearentzat erreferente eta eredu dira kirolariok, batez ere gazteen artean. «Goi-mailako kirolean jardutea erabaki duzue; kasu askotan, lanarekin edo ikasketekin uztartzen duzue. Ahaleginaren, dedikazioaren eta konpromisoaren adibide garbia zarete», gaineratu du. Halaber, Basque Team taldearen lana ere nabarmendu du; fundazio hori kirolariei bitartekoak emateko propio sortua da, goi-mailako lehietan parte har dezaten.

Zer da BAT-Basque Team?

BAT-Basque Team EAEko Administrazio Orokorrek eta Euskal Irrati Telebista erakunde publikoak eratutako fundazio bat da. 2007an sortu zen, euskal kirolari ez-profesionalei baliabideak emateko; hartara, nazioarteko goi-mailako lehiaketetan parte hartzea errazteko.

Basque Team Euskadiko eliteko kirolaren erreferentzia nagusia da. Laguntza ekonomiko, tekniko eta biomedikoak eta psikologia-, irudi- eta komunikazio-aholkularitza eskaintzen dizkie kirolariei.

Gaur egun, goi-mailako 60 kirolari hartzen ditu, eta 25 kirol-diziplina baino gehiago.

Hainbat motatako kirol-proiektu garatzen eta horietan parte hartzen duen arren eta diziplina olinpikoak eta ez-olinpikoak barne hartzen dituen arren, fundazioaren oinarria Joko Olinpikoak eta Paralimpikoak dira. 2012ko Londreseko Joko Olinpikoetan, Basque Teameko kirolariek 4 domina eta 4 diploma lortu zituzten, eta Joko Paralimpikoetan, berriz, 2 domina eta 2 diploma.

Gasteizen, 2016ko ekainaren 29an